



# ERALDATZEN GENERO INDARKERIAK PREBENITZEKO PROGRAMA

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)



# AURKIBIDEA

|                                                  |          |
|--------------------------------------------------|----------|
| <b>SARRERA .....</b>                             | <b>3</b> |
| <b>HELBURUAK.....</b>                            | <b>4</b> |
| <b>NORI ZUZENDUA.....</b>                        | <b>5</b> |
| <b>EDUKIAK.....</b>                              | <b>5</b> |
| <b>METODOLOGIA.....</b>                          | <b>6</b> |
| <b>ESKU HARTZEAREN URRATSAK .....</b>            | <b>6</b> |
| <b>EBALUAZIO ETA AKREDITAZIO PROZEDURA .....</b> | <b>8</b> |

# SARRERA

2017ko maiatzean, Berdintasun Zuzendaritzaren ekimenez, hogeita hamar pertsonako lantalde misto bat sortu zen, EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planeko 3.3.2 ekintza betetzeko. Taldeko kide gehienak unibertsitatekoak ziren (ikasleak, IRIak, AZPkoak eta ordezkari sindikalak), eta, gainera, genero indarkerien aurkako esku hartzearen arloko bi aditu zeuden. Irakasleetako batzuk parte hartzen ari ziren Europako ikerketa proiektu batean, unibertsitateetako sexu indarkerien inguruan. Lan taldearen helburu nagusia zen Genero Indarkerien Aurkako UPV/EHUren Protokoloa egitea. Urtebeteko lanaren ostean, lantaldeak protokoloa amaitu zuen, eta Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2018ko ekainaren 7an.

Protokoloaren Atarikoan esaten denez, EHUren helburua da unibertsitatean giro segurua mantentzea eta sustatzea UPV/EHU osatzen duten pertsona guztientzat, genero indarkerietatik at. Era berean, azpimarratzen da unibertsitateak ez du[ela] genero indarkerien inongo adierazpenik onartuko eta bere esku dauden neurri guztiak hartuko ditu[ela] jarrera eta portaera horiei aurre egiteko. EHUren ustez, genero indarkerien eremuan sartzen diren jarrerak eraso egiten diote pertsonen berdintasun eskubideari eta osotasun fisikoari, psikikoari eta duintasunari. Protokoloaren bidez, unibertsitateak konpromisoa hartzen du jarrera horiek prebenitzeko eta horiei irmo eta sendo aurre egiteko.

Horretarako, Protokoloak biltzen ditu bai prebentzio neurriak eta bai indarkeria kasuak gertatzen direnean jarraitu beharreko prozedura. Zehazki, prebentzio neurrien helburua da genero indarkeriazko ekintzak gerta daitezela eragozteko, eta horretarako unibertsitateko kideak informatzeko, sentsibilizatzeko, trebatzeko eta prestatzeko estrategiak diseinatu eta ezar [tzen ditu]. Neurri horiek genero berdintasun eta aniztasunarekiko eta sexu orientazioarekiko errespetuaren kultura sustatu behar dute, baita barne hartzailea eta indarkeriarik gabekoa izango den giroa sortu ere.

Testuinguru honetan aurkezten dugu gizarte eta hezkuntza esku-hartzerako «**INDARTU**» PROGRAMA, EHUko gizonezko ikasleekin gauzatzekoa. Proposatzen dugu 2020/21 ikasturteko bigarren lauhilekoan lehen edizio bat egitea, gizonezko ikasle guztiei zuzendua. Funtsezkoa da unibertsitateak lan egitea gizonak inplika daitezen indarkeria matxisten kontrako borrokan eta unibertsitatea begirunezko eta tratatu oneko tokia bihurtzeko zereginean.

# HELBURUAK

Programaren **helburu nagusia** da abian jartzea gizonek kontzientzia hartzeko eta dagokien ardura beren gain hartzeko prozesu bat, eurekin zerikusi zuzena daukaten arazo honetan, genero indarkeriak prebenitzeko estrategia gisa.

**Helburu espezifikoak** hiru mailatan zehaztu dira: norbanakoaren maila, testuinguruaren maila eta aktibismoaren maila.

## Norbanakoa

- Ulertzen laguntzea zertan den indarkerien fenomeno eta nola generoen arabera bereizitako hezuntzak abantailak eman dizkion txikitatik parte hartzaile bakoitzari.
- Barne gogoeta bultzatzea, bakoitzak bere uste eta jarrearen sexismoari antzemateko.

## Testuingurua

- Genero indarkerien sustrai, molde eta funtzioen berri ematea.
- Mikromatxismoak eta bestelako indarkeriak identifikatzea eguneroko egoeretan.
- Baliabide pertsonalak eta kolektiboak ematea uste ustelak desmuntatzeko eta eguneroko bizitzako portaera matxistak desaktibatzeke.
- Beste kide batzuen indarkeriazko portaera sexisten konplize ez izateko portaera sendoa sustatzea.

## Protokoloa

- Prozedura ezagutzen laguntzea, genero indarkeriazko egoerarik antzemanaz gero, horren berri eman ahal izateko eta indarkeria horiek jasaten dituzten pertsonen lagun egiteko.

# NORI ZUZENDUA

Programa EHUKo gizonezkoei dago zuzenduta, espazio bat sortzeko gizonek gogoeta egin dezaten beren genero sozializazioaz eta genero indarkerien aurrean duten jarreraz, eta beren erantzukizun eta inplikazioari buruzko erabakiez. Parte-hartzaileak EHUKo edozein campusetakoak eta unibertsitateko edozein kolektibotakoak izan daitezke. Ikastaroan gehienez ere 80 pertsonak har dezakete parte.

## EDUKIAK

Edukiak hiru bloke tematikotan banatzen dira:

**Sexualitateak:** *zein motatako sexualitatea aurkezten zaigu gizartean?*

*Noraino dauzkagu barneratuak sexu arauak? Zelan bizi dugu gure sexualitatea?*

**Genero indarkeriak:** *zer dira genero indarkeriak? Nortzuei eragite digu eta zelan? Identifikatzen al ditugu eguneroko bizitzako mikromatxismoak? Zer-nolako harremanak eraikitzen ditugu arlo afektibo-sexualean, aisialdian, ikasketetan edo lanaren testuinguruan, bai eremu pribatuan eta bai publikoan?*

**Protokoloa:** *zer egin dezakegu indarkeria egoera batean? Zein da gure rola eraso baten aurrean? Zeintzuk baliabide eskaintzen dizkigute erakundeek? Zer egin dezakegu unibertsitatea genero indarkeriarik gabeko eremua izan dadin?*

### Sexualitateak

Sexualitatearen  
eredu hegemonikoa:  
genero sozializazioa,  
heterosexualitatea arau gisa  
eta monogamiaren mitoa

Dibertsitate sexuala:  
identitateak, adierazpenak,  
desira eta erotika dibertsoa

Moral sexual bikoitza:  
emakumeen sexualitatearen  
desjabetza eta  
hipersexualizazioa eta  
gorputzen kontsumoa

### Indarkeriak

Indarkeria matxistak

Sexu indarkeriak

Indarkeria sexistak  
edo generoetan  
oinarritutakoak

Indarkeriak harreman  
afektibo-sexualetan

### Baliabideak

Neure baliabideak  
konponbidearen parte  
izateko: kontzientzia,  
erantzukizuna, sostengua  
eta jarrera proaktiboa genero  
indarkerien aurrean

Baliabide kolektiboak:  
elkartasuna eta indarkeria  
bizi izan dutenei sostengua  
emateko sareak

Baliabide instituzionalak:  
Genero Indarkerien Aurkako  
UPV/EHUREN Protokoloa

# METODOLOGIA

Etika eta pedagogia feministetan oinarritutako metodologia bat erabiliko da, gizon bakoitzak bere esperientzia begirada kritikoz aztertuz ikastearen garrantzia aitortzen duena. Etika feministak erdigunean jartzen du pertsona bakoitza eta haren bizi ibilbidea, hori bere aliatu onena delakoan aurrera egiten uzten ez diguten genero aginduak identifikatzen ikasteko, eta jakiteko zeintzuk lanabes dauzkagun eskura erabakitzeko zein gizon izan nahi dugun eta zein harreman eduki gura ditugun, zaintza lana elkarrena izatearen garrantzirik abiatuta.

Ikastaroa on line egingo dugu, astean behin bideo dei batean elkartuz, eta astean zehar eztabaida foro batean parte hartuz eta zenbati jarduera eginez. Horrela, lanabesak eskuratuko ditugu geure uste sexistak identifikatzeko, gure erlazionatzeko moduetako mikromatxismoak detektatzeko eta gure inguruko indarkeria matxistei aurre egin eta haiek galarazten laguntzeko. Gainera, behar ditugun ezagutzak geureganatuko ditugu laguntza eskatzen digutenei lagun egiteko, behar izanez gero.

# ESKU HARTZEAREN URRATSAK

Programak bi orduko sei saio izango ditu bideo deiaz, eta beste hamar ordu nork bere kabuz eta foroan parte hartuz lan egiteko. Ikastaroak sei aste iraungo du lehen bideo bileratik azkeneko lana amaitzeko egunera arte. Guztira 26 ordu izango dira, otsailaren hasieratik martxoaren amaierara.

## Laburpen taula

(2026ko otsaila-martxoa)

| Sexualitateak                                                                                                                                                                                                                                                             |                                                                                                                                                                                                                                                      |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1. Saioa <ul style="list-style-type: none"> <li>• Tratu oneko kultura baterantz.</li> <li>• Elkarrekikotasuna zainketetan.</li> </ul>                                                                                                                                     | 2. Saioa <ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsonak bezain bete sexualitate.</li> <li>• Desioa eta erotikaren eraikuntza.</li> </ul>                                                                                                         |
| Off line eta on line indarkeriak eta Baliabideak                                                                                                                                                                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                                      |
| 3. Saioa <ul style="list-style-type: none"> <li>• Indarkeria matxistak.</li> <li>• Indarkeria sexistak edo generoagatikoak.</li> <li>• Emakumeen gorputzen hipersexualizazioa eta kosifikazioa.</li> <li>• Jazarpena espazio publikoetan.</li> </ul>                      | 4. Saioa <p>Indarkeria sexualak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sexu-abusuak eta sexu-erasoak.</li> <li>• Sumisio kimikoa.</li> </ul>                                                                                                  |
| 5. Saioa <p>Indarkeria harreman afektibo-sexualetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lotura afektiboak.</li> <li>• Indarkeria motak.</li> <li>• Indarkeria psikologikoa.</li> <li>• Indarkeria sexuala: desioa+borondatea+adostasuna vs onarpena.</li> </ul> | 6. Saioa <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zer egin indarkeria matxisten aurrean: lagun bati gertatzen bazaio, erasotzailea ezagutzen badut.</li> <li>• Baliabide instituzionalak: Genero indarkerien aurkako UPV/EHUn protokoloa.</li> </ul> |

## Egutegi proposamena

| Saioa    | Data       | Ordutegia     |
|----------|------------|---------------|
| 1. Saioa | 2026/02/23 | 15:30 - 17:30 |
| 2. Saioa | 2026/03/02 | 15:30 - 17:30 |
| 3. Saioa | 2026/03/09 | 15:30 - 17:30 |
| 4. Saioa | 2026/03/16 | 15:30 - 17:30 |
| 5. Saioa | 2026/03/23 | 15:30 - 17:30 |
| 6. Saioa | 2026/03/30 | 15:30 - 17:30 |

# EBALUAZIO ETA AKREDITAZIO PROZEDURA

Ebaluazioa egiteko, astero proposatutako jarduerak baloratuko dira, foroetan parte hartuko da, bai eta programaren bideratzaileekin astero online egingo diren saio sinkronikoetan ere.

1'5 kredituren (ECTS) onarpen ofiziala duen partaidetza-ziurtagiria jasotzeko, beharrezkoa izango da:

**On line saioak:** modu sinkronikoan parte hartu behar da saioen % 70ean, nahitaez, eta ezin bada egin, lan osagarri bat egingo da grabatutako saioa ikusi eta proposatzen diren materialak irakurri ondoren. Nahitaezko saioetara joatea ebaluazioaren % 60ri dagokio.

**Foroa:** astero foro bat irekiko da eztabaidarako gai bat plazaratzeko. Nahitaezkoa izango da foro bakoitzean gutxienez behin parte hartzea, ideia eta hausnarketa esanguratsuak partekatuz, proposatutako gaiaren arabera. Ebaluazioaren % 10ek parte hartuko du foroetan.

**Zereginak:** proposatutakoegunetanaurkeztubeharkodiren 6 jardueraproposatuko dira. Arestian adierazi bezala, saiora joaten ez diren pertsonak jarduera gehigarri bat aurkeztu beharko dute. Atazak ebaluazioaren % 30 izango dira.

